

IL AZALPEN PROBA • *Arotzaren eskuak*

Kodea* Taldea

*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko

E dukia		/ 2,5
M oldea		/ 2,5
Z uzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** pasarte hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** pasartea (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**zure IL lanean bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: **300-400** hitz; txukun (zirriborrorik gabe, letrakera argia...) eta margenak utzita.
 5. Amaitutakoan, kontatu hitzak (idatzi /50 /100 /150... markak) eta hemen azken kopurua:

Bouthier jauna oso ezaguna zen herrian. 68 urte zituen eta erretiratu aurretik jaki-denda txiki bat izan zuen Pauillaceko Corneille karrikan. Herriko auzapez monsieur Ledoux oso hunkiturik azaldu zen. “Espero dugu hilketa honen errudunak laster aurkitu eta justizia egitea”, adierazi zien atzo kazetariei. Bestalde, ikerketaz arduratzeko Bordeletik etorritako Geppert komisarioak adierazi zuen ez duela inolako hipotesirik baztertzen.

Dena den, Pauillaceko herritarrek ez dute uste lapurreta izan denik, Bouthier jaunak oso bizimodu xumea baitzuen.

IL AZALPEN PROBA • <i>Arotzaren eskuak</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** pasarte hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** pasartea (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**zure IL lanean bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: **300-400** hitz; txukun (zirriborrorik gabe, letrakera argia...) eta margenak utzita.
 5. Amaitutakoan, kontatu hitzak (idatzi /50 /100 /150... markak) eta hemen azken kopurua:

—Inondik ere, Arotzak egin zuen hau –erran zuen polizia zaharrak. Eguzkienera iritsi bezain laster palak hartu eta lanean aritu ziren hezurak berriz ere azaleratzeko. Polizia ohiak ez zuen arropa aldatzeko astirik ere hartu, eta lurrez zikinduta zegoen, baina ez zuen ematen horrek gehiegi kezkatzen zuenik. Hilobiaren ondoan aparkaturiko bi autoen argietan, hilotzaren besoko hezurak seinatu zituen—. Ikusten marka hauek? Zerra bat erabili zuen. Ebakiaren angelua ere gainerako biktimenaren antzekoa da. Orain liburuak eta egunkari ebakin horiek ikusi nahi nituzke.

Anek estura sentitu zuen bularrean taupaka. *Egiari aurre egin behar zionat*, errieta egin zion bere buruari. Hortzak estutu zituen. Gogaiturik zegoen burua lur azpian gordetzeaz.

IL AZALPEN PROBA • <i>Arotzaren eskuak</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** pasarte hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** pasartea (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**zure IL lanean bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: **300-400** hitz; txukun (zirriborrorik gabe, letrakera argia...) eta margenak utzita.
 5. Amaitutakoan, kontatu hitzak (idatzi /50 /100 /150... markak) eta hemen azken kopurua:

HILKETA LAZGARRIA

PAUILLAC-EKO MAHASTIETAN

Atzo goizaldean, HR. izeneko erretiratu batek aurkikuntza lazgarria egin zuen Pauillac (Gironde) herriaren inguruko mahasti batean. Antza denez, goizean goiz H. R. paseatzera aterea zen bere txakurrarekin. Animalia mahatsondoen artean sartu eta HR.k, haren atzetik joanda, gorpu odoldu bat topatu zuen. Berehala herrira itzuli eta Jendarmeriaren egoitzara jo zuen. H.R.k berak gidatu zituen agenteak gorpuraino. Jendarmeriaren iturriek baieztatu dute hildakoa Jean Louis Bouthier dela, joan den igandetik bere etxetik desagerturik zegoena. Berria kolpe latza izan da Pauillaceko biztanleentzat, berehala zabaldu baitira gorpuren egoera penagarriari buruzko zurrumurruek. Ikertzaileek erabateko isiltasunari eusten badiote ere, Bouthier lazgarriki torturatu zutela jakin da. Bouthier jauna oso ezaguna zen herrian. 68 urte zituen eta erretiratu aurretik jaki-denda txiki bat izan zuen Pauillaceko Corneille karrikan. Herriko auzapez monsieur Ledoux oso hunkiturik azaldu zen. "Espero dugu hilketa honen errudunak laster aurkitu eta justizia egitea", adierazi zien atzo kazetariei. Bestalde, ikerketaz arduratzeko Bordeletik etorritako Geppert komisarioak adierazi zuen ez duela inolako hipotesirik baztertzen.

IL AZALPEN PROBA • <i>Arotzaren eskuak</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** pasarte hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** pasartea (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**zure IL lanean bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: **300-400** hitz; txukun (zirriborrorik gabe, letrakera argia...) eta margenak utzita.
 5. Amaitutakoan, kontatu hitzak (idatzi /50 /100 /150... markak) eta hemen azken kopurua:

Euritako beltza berrogei bat metro aurrerago zihoan. Anek atzera begiratu zuen: Gepperten autoaren argiek euri errezelak zulatzen zituzten. Euritakoa brast gelditu zen. Zer egin ez zekiela, Ane denda bateko erakusleihoari begira jarri zen. Bihotza eztarrarian taupaka zeukan. Mugimendu arraro batez, euritakoaren jabeak paperontzi batera bota zuen lurrin botilatxoaren paketea. Begi ertzetik, Anek euritakoaren azpiko figura zelatatu zuen. Beroki antzeko arropa beltz baten atzealdea ikusi zuen. Figuraren oinetara begiratuta, Ane ohartu zen sandalia irekiak janzen zituela. *Ene, gizon horrek monjea ematen din!* Arima uzkurturik, sustrai okerren antzeko oin haiei begira geratu zen Ane, euriak zigortzen zituen bitartean.

Jazarpenak segitu zuen. De Gaulle plaza zeharkatuta, tren geltokiko aparkalekura sartu zen gizona. Ane autoen artean kukutu zen. Euriak aurpegira itsasten zion ilea, eta begietan sartzan zitzaion. Aparkaleku txikiaren erdian, gizonak euritakoa itxi eta autoen sabai distiratsuen artean desagertu zen. Motor hotsa entzun zen, argi batzuk piztu ziren: gizonak autoa hartu zuen.

Ane lasterka hasi zen argietarantz. Begiradaz, Gepperten autoa bilatu zuen. Ez zuen ikusi. Korrika segitu zuen. *Autoaren marka eta plakak ikusiko ditinat behinik behin*, pentsatu zuen. Bere belaunetik arra betera, auto handi bat gelditu zen balazta kirrinka batez.

—Igo, azkar! —egin zion oihu polizia ohiak leihatilatik.

—Xavier, ia harrapatu nauzu, agure alua!

IL AZALPEN PROBA • <i>Arotzaren eskuak</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** pasarte hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** pasartea (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**zure IL lanean bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: **300-400** hitz; txukun (zirriborrorik gabe, letrakera argia...) eta margenak utzita.
 5. Amaitutakoan, kontatu hitzak (idatzi /50 /100 /150... markak) eta hemen azken kopurua:

Jatetxeko leiho handietatik zerbitzугuneko aparkalekua ikusten zuen. Une hartan hogeita hamar bat auto eta hainbat kamioi egonen ziren, baina Anek bakarra ikusten zuen: zilar koloreko Audi handi bat. Autoari begirik kendu gabe, telefonoa atera eta Gepperten zenbakia sakatu zuen berriz ere, baina poliziaren telefonoak itzalita segitzen zuen. Birao garratza botata, begiak zorroztu egin zituen, auto grisean inor ote zegoen ikusten saiatuz. Ibilgailua hutsik zegoela iruditu zitzaion, baina distantzia handiegia zen. Pentsatzen ahalegindu zen. Tira, ez zekinat auto hori Lasarteko errepidean ikusitako bera den. Izan ere, halako ehunka auto egonen ziren. *Lasarteko hark guri jarraitzen zigun ere ez nagon seguru!*, onartu behar izan zuen.

Erabakia hartu zuen di-da. Jatetxetik atera eta bizkor abiatu zen Audi griserantz. Bere ausardiak adoretuta, azkartu egin zuen abiadura.

Audi grisaren argiak piztu egin ziren. Ane brast gelditu zen. Une amaiezin batez hala iraun zuen, aparkalekuaren erdian izozturik. Audia gurpilen kurrinka batez oldartu zen aurrerantz. Anek jatetxerantz egin zuen, baina auto grisak ez zuen beraganantz jo. Ziztuan, aparkalekuaren irteerara zuzendu zen. Handik segundo batzuetara, autopistako trafikoko usuan galdu zen.

Bihotza bortizki taupaka, Ane zer egin ez zekiela geratu zen. *Lasaitu*, agindu zion bere buruari, *lasaitu eta ganoraz pentsatu. Hau kasualitate hutsa izan dun. Paranoia hutsa. Hogei urte ditun Arotzak inor hiltzen ez duela. Trafikatzaileek hil zitenan Maider. Dozenaka Audi gris egonen ditun, ehunka. Bat ikusten dudan bakoitzean dardarka hasi behar dinat?*